

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

**“Izoriako kolektorea eguneratzeko proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren saileko foro diputatuak, 2026ko ekainaren 17an, 220/2026 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Izoriako kolektorea eguneratzeko proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda handitu eta aldatzea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 502/2025 Erabakiaren bidez, xedatu zen onestea Izoriako kolektorea eguneratzeko proiektua eta obren kontratazioa, bai eta proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda eta hura nahitaez jendaurrean jartzeko izapidea ere.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 9ko 755/2025 Erabakiaren bidez, erantzun egin zitzairen proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean jartzeko izapide bitartean aurkeztutako alegazioei, eta onespena eman zitzaion haren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari; gainera, haiek okupatu eta eskuratu beharra zegoela adierazi zen, eta izapide hori premiazkoa zela adierazi zen, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena eman zitzaion proiektua egikaritzeko behar ziren azalera handitu eta/edo aldatzeko.

2026ko apirilaren 23an, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak jakinarazi zuen ezen “Izoriako kolektorea eguneratzeko proiektua”ren obretarako desjabetze espedienteari dagokionez, trazadura aldatuta bat egin dela, desjabetze espedienteko 6 eta 7 finkei eragiten diena.

Aldaketa hori beharrezkoa izan da, izan ere, 2 kutxatila daude, eta kutxatila horiek ondoko eraikinetako isurketak biltzen dituzte (7 finkan daude), isurketa horiek guztiak biltzeko beste kutxatila bat (bi finken arteko muga dago) eta kutxatila horiek guztiak errepidearen ondoko hobi septikorekin lotzen dituen kolektorea (proiektu honetan eraitsi behar da).

Landan ikusitakoaren arabera, eta bi jabeen adostasunarekin, trazadura aldatu egin da, eta ez da hain kaltegarria izango bi finketarako.

Adostutako trazadura aldatuta kutxatila berri bat egitea dakar, kolektorea hobi septikora iritsi aurretik geldiaraziko eta puntu hori jatorrizko proiektuko 6 putzuarekin lotuko dena. Kutxatila berria Aiarako 5 poligonoko 173 katastro lurzatian kokatuta dago, Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoa, eta ez zegoen proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendan sartuta. Ondorioz, 6/090 finkek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzen da.

Era berean, 7/000 finkek afekzioa handitzen du, eta, beraz, 7/100 finkek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzen da.

Aldiz, 6/000 finkan, trazadura aldatzearen ondorioz, afekzioa murrizten da: 8 m<sup>2</sup>-ko behin betiko okupazioa izatetik 6 m<sup>2</sup>-koa izatera, 1920 m<sup>2</sup>-ko aldi baterako okupazioa izatetik 1224 m<sup>2</sup>-ra eta 358 m<sup>2</sup>-ko akueduktu zortasuna izatetik 295 m<sup>2</sup>-ra. Era berean, kentzen da hasierako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendan jasotako etxolaren afekzioa.

Beraz, Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuaren 2026ko apirilaren 23ko txostenean azaldutakoaren arabera, azaldutako trazadura aldaketa dela eta, 6/090 eta 7/100 finketara zabaldu da desjabetzea. Finka horiek foru agindu honen eranskinean zehazten dira, eta 6/000 finbaren afekzioak aldatzen dira.

Bestalde, egokia da eranskinean agertzen diren 6/000 (lehorreko labore) eta 7/100 (lehorreko labore) finken aprobetxamenduak aldatzea, eta proiektuaren eraginpeko ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko 2025eko urriaren 2ko Desjabetze Atalaren txostenean proposatutakoekin, hau da, 6/000 finkarako belardiarekin eta 7/100 finkarako lorategiarekin.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta zabaltzea aurreikusten du, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz. Era berean, esan behar da presaz okupatu beharrekotzat adierazteak egikaritu beharreko proiektuen handitzeak ere hartzen dituela, eta, beraz, presako prozeduraren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak egin behar dira.

Aldaketa honen eraginpeko ondasun eta eskubideen desjabetzearen aurrekontua 606,96 euroan balioetsi du Desjabetze Atalak.

Ikusi dira Desjabetze Atalak eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko diputatua eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zabaltzea "Izoriako kolektorea eguneratzeko proiektua" gauzatzeko behar den desjabetzea, eranskinean agertzen diren 6/090 eta 7/100 finketara.

Bigarrena. Desjabetze espedienteko 6/000 finbaren afekzioak aldatzea, foru agindu honen eranskinean agertzen denaren arabera.

Hirugarrena. Adieraztea handitze eta aldatze horren eraginpeko ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeko, aldi baterako okupatzeko eta saneamendu akueduktu zortasuna ezartzeko.

Laugarrena. Presazko prozeduraz izapidetzea eranskinean zerrendatutako finken desjabetzea.

Bosgarrena. 606,96 euroko kreditu atxikipena egitea, 15302. G/452150/62101156 "Izoriako kolektorerako lurra erostea" partidaren kontura, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi ondorengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Aiarako Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkek okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 22a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*

**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**

Mugikortasun Jasangarriaren eta  
Bide Azpiegituren Saila  
Departamento de Movilidad Sostenible  
e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

PROIEKTUA / PROYECTO  
Izoriako kolektorea eguneratzeko proiektua  
Proyecto de actualización del colector de Izoria

ERANSKINA / ANEXO  
Udal Mugartea / Término Municipal: AIARA/AYALA

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup>	Esp./Expte. 2025/8-AMPLIACIÓN A				
		POLIGONOA	LURSAILA		APROBETXAMENDUA	BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKO SUPERFICIE AFECTADA m <sup>2</sup>	ZORTASUNA: Lurpeko saneamendua	ORDUA
Nº FINCA	TITULAR	POLIGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO	SERVIDUMBRE: Acueducto de saneamiento 3m	DIA	HORA		
6/090	ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA	5	373	Zelaiak / Pradera	98				
6/000	URIARTE ZABALETA, ANSELMO URIARTE BERAZA, GURUTXE URIARTE BERAZA, IRATXE	5	370 - a	Zelaiak / Pradera	295	21/07/2026	10:00		
7/100	OBALDIA ORTIZ, M.PILAR	5	371 - a	Lorategi/Jardín	111	21/07/2026	10:45		